



Arartekoaren 2022R-1716-22 Ebazpena, 2022ko azaroaren 10ekoa. Horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari gomendatzen zaio bide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzeko dirulaguntzak ukatzeko administrazio-prozedurak izapidetu ditzala, administrazio elektronikoaren printzipio eta arauen arabera.

Aurrekariak

Arartekoak kexa bat izapidetzea onartu zuen. Bertan, kexagileak adierazi zuen ez zegoela ados 2022ko apirilera arte jaso zuen dirulaguntza bat etetearekin. Administrazioak dirulaguntza eten zion hura jasotzen jarraitzeko baldintzak betetzen ez zituela uste zuelako.

Zehazki, kexagileak adierazi du A8 autobidea erabiltzen duela eta eskatu zuela Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean BFA) ematen duen dirulaguntza, zeina Interbiak Bizkaia SAMPk (aurrerantzean, Interbiak) kudeatzen baitu, foru-aldundiek zuzenean kudeaturiko beren titulartasuneko bide-azpiegitura bidesaridunak erabiltzen dituzten pertsona fisikoentzako dirulaguntzen deialdiko onuradun izate aldera.

Era berean, interesdunak egindako kexan adierazi duenez, Interbiak erakundeak mezu elektronikoak igorri zizkion gidabaimenaren baliozkotasuna 2022ko apirilaren 2an iraungiko zela jakinarazteko, laguntzak eskatzeko eta kudeatzeko gaitutako Bidesaria plataforman ageri zen bezala. Hala, berritutako dokumentua entregatu behar zuela ohartarazi zioten, BFAk araututako laguntzak jasotzeko baldintza bat baita.

Ondoren, kexagileak adierazi du dirulaguntza apirilean ukatu zitzaiola berritutako titulua aurkeztu arte, eta, gainera, gidabaimena postaz bidaltzera behartu zutela. BFAko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailera bidali zuen, eta horretarako Estatuko Administrazio Orokorraren Erregistro Elektroniko Orokorra erabili zuen; eskatutako dokumentua aurkeztu zuela frogatzeko, Interbiak-en webguneko harremanetarako inprimakiaren bidez jaso zuen ordainagiri elektronikoa erantsi zuen. Ondoren, kexagileak adierazi du foru-erakunde horrek zerga-betebeharrak egunean zituela egiaztatzen zuen ziurtagiri bat aurkezteko eskatu ziola, eta Zerga Administrazioko Estatu Agentzian eskatu zuela. Estatuko Administrazio Orokorreko Erregistro Elektroniko Orokorren bidez bidali zuen berriz ere; eskatutako dokumentua behar bezala aurkeztu zuela egiaztatzeko, Interbiak-en webguneko harremanetarako inprimakiaren bidez jaso zuen ordainagiri elektronikoa erantsi zuen.





Azkenik, kexagileak azaldu du Interbiak erakundeak gidabaimenaren kopia bidaltzeko eskatu ziola, PDF formatuan eta Bidesaria webguneko inprimakiaren bidez. Horrela egin zuen; ondoren, mezu elektronikoa jaso zuen, eta horren bidez jakinarazi zioten ez zuela ekaineko dirulaguntza jasoko, ezta aurretik jaso gabeko apirilekoa eta maiatzekoa ere, gidabaimena iraungita zegoelako.

Egitate horiek ikusirik, Arartekoak lankidetzaren eskari bat bidali zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailera, honako kontu hauen gaineko informazio zehatza eskatu zen:

- Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bidez edo herritarren arretarako bulegoen bidez administrazioarekin harremanetan jartzeko aukera eman ote zaion interesdunari
- Administrazio eskudunak datubitarartekaritzarako plataformak erabiltzen ote dituen eta, erantzuna ezezkoa bada, horiek ez erabiltzeko arrazoiak. Zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiak edo Interbiak-ek datuak egiaztatzeko ahalak baliatuz eta datu-bitartekaritzarako plataformak erabiliz, kexagilearen gidabaimenaren indarraldia nahiz zerga-betebeharrak egunean izatea beste administrazio eskudun batzuetan ez kontsultatzeko arrazoia.
- Administrazio eskudunak edo Interbiak-ek interesdunari aurretiazko errekerimendurik egin ote dioten egitateak, aplikatu beharreko arauak eta epeak jasotzen dituen dokumentazioa aurkez dezan eta, erantzuna ezezkoa bada, adierazi dezatela horrelakorik ez eskatzeko eta dirulaguntza ukatzeko arrazoiak.
- Apirilean, maiatzean eta ekainean dirulaguntzaren ukapenak bere horretan mantentzeko arrazoiak, baldin eta interesdunak adierazi badu Interbiak-ek eskatutako dokumentazioa aurkeztu duela; halaber, gertatutako egitateei eta aplikatu beharreko arauari buruzko administrazioaren ebazpenik edo egintzarik justifikatu edo jakinarazi ote den zehaztea nahi dugu.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren enkargua, non Interbiak bitarteko propio pertsonifikatuari igorritako xedea eta gainerako jarraibideak jasotzen baitira, bidesariak dituzten bidez azpiegiturarako erabiltzaileei emandako laguntzak izapidetu, kudeatu eta kontrolatze aldera.

Egindako lankidetzaren eskaerari erantzunez, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako diputatuaren idazki bat iritsi zen erakunde honen erregistrora. Bertan, egindako jarduketan berri eman zuen. Laburbilduz, honako hau helarazi zion Arartekoari:





- Kexagileak 2022ko urtarrilaren 25ean egin zuen dirulaguntza-eskaeraren onarpena, dirulaguntza-deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen zituelako.
- 2022ko apiriletik aurrera dirulaguntza ukatzeko izan zuten arrazoia; izan ere, ez zuen betetzen laguntzak kalkulatzeko unean gidabaimena indarrean edukitzeko baldintza.
- Bidalitako mezu elektronikoen eranskina, interesdunari gogorarazteko gidabaimena iraungitzeaz zegoela.
- Hutsegitez adierazi zitzaion zerga-betebeharrak betetzeari buruzko informazioa erantsi behar zuela. Hori ofizioz egiazta daiteke datu-bitartekaritzarako plataformaren bidez.
- Interesdunak adierazi zuen berritutako gidabaimena uztailean bidali zuela Estatuko Administrazio Orokorraren erregistroaren bidez. Hala ere, ekaineko dirulaguntzaren ukatzea mantendu zen, dokumentua ez zelako Interbiak-en Bidesaria plataformara igo, nahiz eta ekainaren 24an aurkeztu zela jasota dagoela onartu.
- BFAk adierazi zuen Interbiak erakundearekin harremanetan jar daitekeela egoitza elektronikoen bidez, eta prozeduren katalogoaren bitartez dirulaguntza-prozeduran sartzeko aukera dagoela. Dena den, dirulaguntzak eskatzeko Interbiak-en webgunean sartu behar dela jakinarazi zuen.
- Era berean, BFAk azaldu zuenez, administrazio eskudunen datu-bitartekaritzarako plataformetan sartzten da honako hauei buruzko baldintzak egiaztatzeko: helbide fiskala, Foru Ogasunarekin edo beste Administrazio Publiko batzuekin zorrik ez izatea eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea. Aldiz, ez da hori egiten gidabaimenaren iraunaldia egiaztatzeko, dokumentua zuzenean eskatzen baitzaie interesdunei.
- Administrazio eskudunak adierazi du Bidesaria plataformatik mezu elektronikoa bidali zirela 2022ko otsailaren 1ean, 2022ko martxoaren 1ean eta 2022ko apirilaren 1ean. Horrez gain, kexagileari ohartarazi zitzaion bere gidabaimena iraungitzeaz zegoela eta hura indarrean egotea baldintza bat zela laguntzak kalkulatzeko unean. Era berean, azaldu zitzaion gidabaimen berria "nire dirulaguntzak/dirulaguntza aldatu" atalean erants zezakeela eta iraungitze-data eguneratu.
- Azkenik, interpelatutako administrazioak mandatu edo tresna juridikoa bidali zuen, BFAk Interbiak erakundeari dirulaguntzak kudeatzearen arloan helarazitako jarraibideekin.

Azkenik, Arartekoan irekitako espedientea izapidetzean, kexagileak dokumentazio osagarria erantsi zuen, eta Interbiak-en webgunean egindako kexen laburpen bat gehitu zuen. Era berean, 2022ko ekainean aurkeztutako berraztertze-errekurtsoaren ezespina aurkeztu zuen, maiatzeko dirulaguntza-eskaera ukatzeari buruzkoa. Ebazpenean, administrazioak adierazi zuen errekurtsua ezetsi zuela kexagileak ez zuelako egiaztatu onuradun izateko baldintzak betetzen zituenik; funtsean,





gidabaimena indarrean ez zuelako eta dirulaguntzen plataforman 2022ko uztailaren 17ra arte eguneratu ez zuelako. Hala, 1907/2021 Foru Dekretuaren 2. artikulua urratu zuen (ez dugu aipatutako xedapen hori aurkitu).

Beraz, uste dugunez baditugula beharrezkoak diren egitateak eta zuzenbide-elementuak, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

Gogoetak

I. Dirulaguntzak emateko administrazio-prozedura eta baldintza bat bete ez dela gogorazteko mezu elektronikoak bidaltzea.

Kexa honen hizpide den dirulaguntza eskariaren prozedura arautzen du BFaren abenduaren 7ko 167/2021 Foru Dekretuak. Horren bidez onesten dira foru aldundien titulartasunekoak diren eta zuzenean kudeatzen diren bidesaridun errepide azpiegituren erabiltzaile diren pertsona fisikoei zuzendutako 2022ko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, eta hitzaurrean honako ahu adierazten du: “Foru Dekretu hau bat dator erregulazio onaren printzipioekin, printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatuta daudelarik eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021ko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan, jasota”. (Arartekoak azpimarratu du).

Aurretik adierazi den bezala, Interbiak-en txosten baten bidez, Administrazioak kexagileari bidalitako mezu elektronikoak helarazi ditu, aldeztu aurretik emandako dirulaguntza jasotzen jarraitzeko ezinbesteko baldintza bat betetzen ez zuela ohartarazteko.

Kexagileak dio urtarrilean, otsailean eta martxoan jaso zuela eskatutako dirulaguntza, eta, beraz, bere aldeko onespenez jaso zuela, dirulaguntza jasotzeko ezarritako epean eta moduan eskaera-baldintzak betetzen zituelako.

Apiriletik aurrera, interesdunak zegokion zenbatekoa jasotzeari utzi zion, indarrean zegoen gidabaimenaren kopia aurkeztu ez zuelako. Azpiegiturarako eta Lurralde Garapenerako Sailak apirilean eta maiatzean argitaratutako dirulaguntzen onarpen-eta ukatze-ebazpenek, maiatzaren 18ko 1734/2022 Foru Aginduaren eta ekainaren 16ko 1907/2022 Foru Aginduaren bidez argitaratutakoek, dirulaguntza ukatzen diote kexagileari 02 arrazoiarengatik.





Dirulaguntzak arautzen dituen 167/2021 Foru Dekretua aztertuta, badirudi 02 arrazoa bat datorrela prozeduraren hasieran, eskaera egitean, gidabaimena indarrean izateko baldintzarekin, [I. Eranskineko inprimakian](#) jaso den bezala.

Horrela, ondoriozta liteke interesduna 167/2021 Foru Dekretuaren 6. artikuluan jasotako kasuaren aurrean dagoela, eskabideak aurkezteko moduari eta epeari buruzkoa. Hona:

“1. Interesdun bakoitzak dirulaguntzarako eskabide bakarra aurkeztuko du; eskabideak aurkezteko epea programa hau onesten duen Foru Dekretua indarrean jartzen den egun berean hasiko da, eta 2022eko abenduaren 31n amaituko.

2. Eskaerak interesdunek eurek edo beren ordezkariak aurkeztu behar dituzte. Bi bide izango dituzte eskaerak aurkezteko: www.interbiak.bizkaia.eus web-orrian eskura daitekeen dirulaguntzetarako eskaera-inprimakia betez, edo, zuzenean, Interbiaken bulegoetan (Kanariar Uharteak, 19, 1, Bilbo).

3. Eskabideak behar bezala beteta ez badaude, edo Foru Dekretu honetan eskatutako agirietakoren bat falta badute, INTERBIAKek errekerimendua egingo dio interesdunari, hamar egun balioduneko epearen barruan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Era berean, jakinaraziko zaio ezen hala egiten ez badu eskaeran atzera egin duela ulertuko dela eta, behin ebazpena emanda, eskaera artxibatu egingo dela.

4. Interbiakerek informazio osagarria eskatu ahal izango du, baldin eta, behar bezala arrazoituta, beharrezkotzat jotzen badu eskabidea ebazteko. Errekerimenduari ez bazaio emandako epean erantzuten, eskatzaileak eskaeran atzera egin duela joko da, eta, ebazpena eman ondoren, eskaera artxibatu egingo da”. (Arartekoak azpimarratu du).

Kasu hori ezin zaio kexagilearen egoerari aplikatu; izan ere, bere aldeko onespenez bidez lortu zituen 2022ko urtarrilean, otsailean eta martxoan emandako dirulaguntzak (besteak beste, apirilaren 13ko 1413/2022 Foru Aginduaren bidez), eta, beraz, eskaera zuzen aurkeztu zuen prozeduraren hasieran, indarreko gidabaimena barne, Administrazioak eskatu bezala. Horrenbestez, ez liteke egokitzat jo beharko dirulaguntza bat ukatzea baldintza bat betetzen ez delako, prozeduraren hasieran behar bezala betetzen zelarik, onuraduna izatera igaroz, abenduaren 14ko 167/2021 Foru Dekretuaren 6. artikulua araberara.

Administrazio-prozedura administrazio onaren arauetara egokitzearen ikuspegitik, gogorazi behar da administrazio-egintza Administrazioak erabakia hartzeko dituen benetako arrazoiak jasota uztean datzala, eta helburua hartzaileari administrazio-egintza horri aurre egiteko aukera ematea dela, eta, hala badagokio, administrazio-egintzari aurre egitea. Auzitegi Gorenak honela deskribatzen du (Jurisprudentzia



Bilduma Ofiziala: Auzitegi Gorenaren 1997ko abenduaren 12ko Epaia / ECLI: ES:TS:1997:7611):

“El requisito de la motivación significa que la Administración Pública exprese las razones de hecho y de derecho en las que el acto administrativo descansa: con este requisito se controla la causa del acto”.

Administrazioak emandako erantzunean agertzen denez, Interbiak erakundeak bidalitako mezuen edukiaren bidez interesdunari hitzez hitz jakinarazi zitzaion dirulaguntzen onuradun gisa “onartuta” zegoela. Hona:

“CARNET PRÓXIMO A CADUCAR - AVISO

Estimado Sr.

Recibe usted este correo electrónico porque figura en nuestra base de datos como solicitante aceptada/o para ser beneficiario de las subvenciones otorgadas por el Departamento de Infraestructuras y Desarrollo Territorial, como ayuda a las personas físicas residentes y con domicilio fiscal en Bizkaia y usuarias de las infraestructuras viarias, gestionadas directamente sometidas a peaje de titularidad de las Diputaciones forales y porque, según datos obrantes en el sistema, su carnet de conducir va a caducar próximamente.

La fecha de límite de validez del carnet de conducir es 02/04/2022.

Le recordamos que uno de los requisitos para poder percibir las ayudas reguladas en el Decreto Foral es que el carnet de conducir debe estar en vigor en el momento del cálculo de las ayudas, por lo que antes de la fecha límite indicada debe adjuntar el nuevo documento del carnet de conducir en vigor accediendo a la pestaña “Mis subvenciones”. Recuerde que la documentación que adjunte debe recoger las dos caras del carnet de conducir”. (Arartekoak azpimarratu du).

Aurretik azaldutakoaren arabera, ondorioztatu da Interbiak-ek interesdunari gidabaimena iraungitzear zegoela jakinarazteko bidalitako mezu elektronikoetan ez zela adierazi prozeduraren hasieran zuzentzeko errekerimendurik zegoenik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 68. artikuluaen arabera (aurrerantzean, APEL). Beraz, dagoeneko ezin da auzi horretara itzuli, ebatzita dagoela baitirudi.

Badirudi Interbiak-en jarduketa onuradunak bete behar dituen betebeharretan inkardinatu dela, zeina behartuta baitago portaera jakin bat izatera dirulaguntza eman eta onartu denetik aurrera, eta, azken finean, prozedura antolatzeko faseari dagozkion egintzetan, 167/2021 Foru Dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoaren arabera (III. Titulua, dirulaguntzen kudeaketari eta justifikazioari buruzkoa):





“21. artikulua.—Jarraipena

Foru Dekretu honetan jasotzen diren dirulaguntzen onuradunek agiri bidez frogatu beharko dute egin dituztela diruz lagunduriko jarduerak eta betetzen dituztela dirulaguntza jasotzeko baldintzak. Hori guztia, Foru Dekretu honetan, dagokion deialdian nahiz laguntzak emateko foru aginduan jasotzen den moduan egin beharko dute, bai eta, edozein momentutan, hala eskatzen badie Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak nahiz kasuan-kasuan dagokion erakunde laguntzaileak”.

Administrazio-prozedura antolatzeke faseari dagokionez, APELeko 73. artikulua honako hau ezartzen du:

“73. artikulua. Izapideak betetzea.

1. Interesdunek bete beharreko izapideak hamar eguneko epean egin beharko dira, dagokion egintza jakinarazi eta biharamunetik zenbaturik, dagokion arauak bestelako eperik ezartzen ez badu.

2. Prozeduraren edozein unetan, Administrazioak, irizten badio interesdunen egintzaren batek ez dituela betetzen behar diren betekizunak, hala jakinaraziko dio egintzaren egileari, eta hamar eguneko epea emango dio egintza hori behar bezala betetzeko.

3. Aurreko zenbakietan xedatutakoa betetzen ez duten interesdunek dagokion izapiderako eskubidea galdu dutela deklaratu da. Hala ere, interesdunaren jarduketa onartuko da, eta legezko ondorioak izango ditu, baldin eta epea iragantzat jotzen den ebazpena jakinarazten den eguna baino lehen edo egun horren barruan gertatzen bada”.

Eta Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen 203/2021 Errege Dekretuko 14. artikuluko 3. paragrafoak honako hau xedatzen du:

“3. En el caso de que el escrito o solicitud presentada adolezca de cualquier otro defecto subsanable, por la falta de cumplimiento de los requisitos exigidos en los artículos 66, 67 y 73 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, o por la falta de otros requisitos exigidos por la legislación específica aplicable, se requerirá su subsanación en el plazo de diez días, en los términos de los artículos 68.1 y 73.1 de la citada ley. Este plazo podrá ser ampliado hasta cinco días, a petición del interesado o a iniciativa del órgano, cuando la aportación de los documentos requeridos, en su caso, presente dificultades especiales, siempre que no se trate de procedimientos selectivos o de concurrencia competitiva”.





Interesdunek prozeduran zehar bete behar dituzten izapideak betetzeko, aipatutako agindu guztiek hamar eguneko epea ezartzen dute, jakinarazpena egin den egunetik zenbatzen hasita. Interbiak-ek bidalitako jakinarazpenean, ordea, ez da epe hori bete.

Hain zuzen ere, APELeko 73. artikuluko bigarren atalean xedatzen denez, administrazioak uste badu interesdunak ez dituela prozeduran xedatutako baldintzak betetzen, "hala jakinaraziko dio egintzaren egileari", eta adierazpen hori jakinarazpen gisa interpretatu beharko da, administrazio-prozeduraren bermeak babesteko.

Hala, segurtasun juridikoaren printzipioak eskatzen du interesdunari guztiz bermatzea administrazioak emandako egintzen berri izango duela, legezko eskubide eta interesak defendatzeko egokitzat jotzen dituen defentsa-bitarteko guztiak erabili ahal izateko; ildo horretan, komunikazio-egintzak bitarteko elektronikoen bidez egiteak honako helburu hau du: *"tiene como objeto que quede constancia fehaciente tanto del hecho de la recepción del acto de comunicación por el destinatario y su fecha, como del contenido del acto administrativo"* (STC 6/2019).

Konstituzio Auzitegiak adierazi duenez, jakinarazpen-egintzek *"cumplen una función relevante, ya que, al dar noticia de la correspondiente resolución, permiten al afectado adoptar las medidas que estime más eficaces para sus intereses, singularmente la oportuna interposición de los recursos procedentes"* (Konstituzio Auzitegiaren 155/1989 Epaia, urriaren 5ekoa, 2. OJ); gainera, *"finalidad material de llevar al conocimiento"* de sus destinatarios los actos y resoluciones *"al objeto de que éstos puedan adoptar la conducta procesal que consideren conveniente a la defensa de sus derechos e intereses y, por ello, constituyen elemento fundamental del núcleo de la tutela judicial efectiva"*. Horrela, babesgabetasuna saihestea jasotzen da Espainiako Konstituzioaren 24.1. artikuluan (Konstituzio Auzitegiaren 59/1998 Epaia, martxoaren 16koa, 3. OJ; ildo beretik, Konstituzio Auzitegiaren 221/2003 Epaia, abenduaren 15ekoa, 4. OJ; Konstituzio Auzitegiaren 55/2003 Epaia, martxoaren 24koa, 2. OJ).

Administrazio-eremuan, Auzitegi Gorenaren jakinarazpenen arloko jurisprudenzia-irizpidea Auzitegi Gorenaren 2021eko martxoaren 25eko Epaian¹ (errekurtso-zenbakia: 6099/2019) jaso zen. Honako hau jasotzen da:

"[...] al objeto de determinar si debe entenderse que el acto administrativo o resolución notificada llegó o debió llegar a conocimiento tempestivo del

¹ ECLI:ES:TS:2021:1117



interesado, los elementos que, con carácter general deben ponderarse, son dos.

En primer lugar, el grado de cumplimiento por la Administración de las formalidades establecidas en la norma en materia de notificaciones, en la medida en que tales formalidades van únicamente dirigidas a garantizar que el acto llegue efectivamente a conocimiento de su destinatario.

Y, en segundo lugar, las circunstancias particulares concurrentes en cada caso, entre las que necesariamente deben destacarse tres:

- el grado de diligencia demostrada tanto por el interesado como por la Administración;*
- el conocimiento que, no obstante el incumplimiento en su notificación de todas o algunas de las formalidades previstas en la norma, el interesado haya podido tener del acto o resolución por cualesquiera medios; y, en fin,*
- el comportamiento de los terceros que, en atención a la cercanía o proximidad geográfica con el interesado, pueden aceptar y aceptan la notificación.”*

Interbiak-ek interesdunari bidalitako komunikazioaren edukia kontuan hartuta, uste dugu interesdunak aukera izan behar duela bere burua defendatzeko eta administrazio-bidean bere jarrera egiaztatzeko. Dena den, badirudi aukera hori ezerezean geratu dela; izan ere, aurretik azaldu den bezala, ez zen zuzentzeko epea adierazi, ezta eskatutako dokumentazioa ez aurkeztearen ondorio juridikoa ere, jakinarazpenen arloko formalitateei dagokienez, besteak beste.

Hain zuzen, kexagileak nekez konpon dezake baldintza hori administrazioak eman zuen egintzaren edukia ezagutu ezin badu, ezinezkoa baita jakinarazpena egoitza elektronikoan agertzearen bidez eskuratzea (APELeko 43. artikulua eta Sektore publikoaren bitarteko elektronikoen bidezko jardunaren eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Errege Dekretuko 42. artikulua), prozedura horretan ez baitago eskuragarri. Bidesaria sistema, Interbiak-en webgunean² dirulaguntzak kudeatzeko gaituta dagoena, ez dirudi baliozko bitarteko elektronikoa denik izapidetze administratiboa sustatzeko, ez baititu betetzen APELen ezarritako administrazio elektronikoaren funtsezko arauak; hots, Bidesaria sistema BFAko egoitza elektronikoan egotea (BFAko helbidea <https://www.ebizkaia.eus> da), Bizkaiko Foru Aldundiaren Administrazio Elektronikoari buruzko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera. Foru enpresa-erakunde publikoei aplikatzekoa da, zuzenbide publikoaren pean egiten dituzten jardueri dagokienez (2. art.).

Azken finean, badirudi urratu egin dela interesdunak eskumena duen organoak egoitza elektronikoaren bidez emandako izapide-egintza ezagutzeko eskubidea ([APELeko 53. artikulua](#)); izan ere, Interbiak-ek bidalitako mezuek, azken batean

² Eskuragarri: https://interbiak.bizkaia.eus/gestion_usuarios/login.asp?idioma=ca



Administrazioak dirulaguntza ukatzeko kontuan hartutakoek, ez dituzte betetzen jakinarazpenak egiteko baliozkotasun-baldintzak, ez baitzen adierazi jakinarazpena jaso zenik, ez eta jakinarazitako egintzaren data, identitatea eta edukia ere. Halaber, jakinarazitako egintzan dokumentazioa aurkezteko epe bat eman beharko litzateke, eta ez-betetzearen ondorioei buruz ohartarazi, aurreko paragrafoetan azaldu den bezala.

Foru Dekretuak hitzurrean jasotzen duen administrazio onaren printzipioa berrartuz, garrantzitsutzat jotzen da Auzitegi Gorenak 2020ko abenduaren 3ko Epaian³ printzipio horri buruz egin zuen interpretazioa aipatzea (errekurtso-zenbakia: 8332/2019). Hona: *“la buena administración es algo más que un derecho fundamental de los ciudadanos, siendo ello lo más relevante; porque su efectividad comporta una indudable carga obligación para los órganos administrativos a los que se les impone la necesidad de someterse a las más exquisitas exigencias legales en sus decisiones, también en las de procedimiento...”*.

II. Erantzukizunpeko adierazpenak eta sinplifikazio administratiboaren helburua.

167/2021 Foru Dekretuko II. eranskinak “Erantzukizunpeko adierazpena” izeneko inprimakia du, eta, horren bidez, dirulaguntzen eskatzaileek honako hau deklaritzen dute, besteak beste:

- Bizkaian erroldatuta dagoela eta Bizkaian duela zerga-egoitza.
- Gidabaimena indarrean duela.
- Egunean dagoela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeari dagokionez, dirulaguntzen araubidea arautzen duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 17.2.a) artikuluan ezartzen den moduan.
- Ez duela debekurik dirulaguntzen onuradun izateko, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrez gain, aipatutako dokumentuaren bidez, eskatzaileak honako hau onartzen du: *“Baimena ematen diela Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailari eta Interbiak sozietateari bere izenean eskatu ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzeko informazioa eta, hala badagokio, ziurtagiriak, bai eta hemen adierazitakoa benetakoa den egiaztatzeko behar den beste edozein informazio ere”*.

³ ECLI:ES:TS:2020:4161



Doktrinaren arabera, erantzukizunpeko adierazpenak egintza juridiko pribatuak dira, eta eskubide edo jarduera bat erabiltzeko gaitzen dute. Eraginkortasun propioa, kanpoko eta juridiko-publikoa dute, geroko berrespen administratiboaren beharrik gabe. Azken finean, baimentzeko administrazio-egintza tradizionalak ordeztzen dituzte. *“Le sirve al titular de la actividad como vehículo para informar sobre hechos positivos cuya probatura documental también supondría una carga de la que se libera al administrado, porque a la Administración le basta en principio con su mera declaración”*⁴ Egintza juridiko pribatuak dira, igorlearen erantzukizunpean garatutakoak eta ondorengo administrazio-kontrol baten mendean daudenak; hau da, autoegiaztapenaren mende. [Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiaren 2016ko maiatzaren 17ko Epaia: *“la clave está en el procedimiento, porque la declaración responsable evita la tramitación del procedimiento administrativo (...), la nueva normativa elimina el procedimiento administrativo, que se residencia a un control posterior”*.

Erantzukizunpeko adierazpenaren ondorioei dagokienez, horiek aurkezteak aukera ematen du, kasuaren arabera, *“con carácter general, el reconocimiento o ejercicio de un derecho o bien el inicio de una actividad, desde el día de su presentación, sin perjuicio de las facultades de comprobación, control e inspección que tengan atribuidas las Administraciones Públicas”*.⁵

Hori izango litzateke, hain zuzen, erantzukizunpeko adierazpenaren zentzua edo izaera: administratua hainbat dokumentu aurkeztetik libratzea, horiek zama jasangaitzak ekar ditzaketelako. Horrela, aurretiazko kontrol-teknikak murriztuko lirateke, barne-merkatuko zerbitzuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentarauaren 9. artikuluan jasotako hiru baldintzak betez. Zuzentarau hori gure ordenamendu juridikora ekartzeak adierazten du administrazio-arloko trabak murriztea helburu nagusi bat dela:

“a) justificación en base a una razón imperiosa de interés general; b) no discriminación entre los distintos prestadores de servicios; c) no sea posible conseguir el objetivo con una <<medida menos restrictiva>>, y en definitiva con el objetivo de facilitar la libre prestación de servicios”.

Erantzukizunpeko adierazpenaren xedea eta ondorioak laburbiltzeko, Auzitegi Gorenak duela gutxi egindako epaiaren 5. oinarri juridikoa aipa daiteke

⁴ CUBERO MARCOS, J.I. 2013. *La comunicación previa, la declaración responsable y el procedimiento administrativo: especial referencia al establecimiento de actividades y a la prestación de servicios*. Zizur Txiki (Nafarroa). Thomson Reuters Aranzadi.

⁵ GAVIEIRO GONZÁLEZ, Sonia. 2017. *Análisis de la jurisprudencia sobre las comunicaciones previas y declaraciones responsables de actividades*. Xedapenak, 39/2015 Legeko 69. artikulua ikusita. El Consultor de los Ayuntamientos, Wolters Kluwer 6275/2017 LEGEA.



(Jurisprudentzia Bilduma Ofiziala: Auzitegi Gorenaren irailaren 20ko 3360/2022 Epaia). Honako hau dio:

“De lo hasta ahora expuesto se infiere que, tras la implantación normativa del nuevo régimen liberalizador del acceso y ejercicio de las actividades de servicios, concretado -a los efectos que ahora nos interesan- en el artículo 69 de la Ley 39/2015, el inicio de la actividad se condiciona a una manifestación del sujeto que desea ejercer aquélla, comunicando a la Administración que cumple los requisitos exigidos legalmente para ello; y la Administración efectúa un control a posteriori para verificar que, efectivamente, se cumplen aquellos requisitos. La consecuencia del cambio de planteamiento normativo respecto de la situación anterior es clara: ahora no existe, propiamente, un procedimiento autorizatorio que, iniciado con una solicitud del sujeto, deba concluir con una resolución administrativa "otorgando permiso" a aquél para realizar la actividad pretendida. Al liberalizarse el ejercicio de la actividad, el sujeto puede dar comienzo a ésta, si cumple los requisitos legales, una vez comunique esta circunstancia a la Administración; y será entonces cuando la Administración lleve a cabo su actividad de control para verificar el ajuste de aquélla a la legalidad, de manera que si apreciara deficiencias en la comunicación presentada (o en la documentación correspondiente) podrá requerir del sujeto la oportuna subsanación e, incluso, en los supuestos previstos legalmente -véase el apartado 4 del artículo 69 de la Ley 39/2015- podrá llegar a declarar la ineficacia de la comunicación previa y determinar la obligación del interesado de restituir la situación jurídica al momento previo al reconocimiento o al ejercicio del derecho o al inicio de la actividad correspondiente, así como la imposibilidad de instar un nuevo procedimiento con el mismo objeto durante un período de tiempo determinado por la ley, todo ello conforme a los términos establecidos en las normas sectoriales de aplicación.

Quiere ello decir que si a estos efectos no existe ya, propiamente, un procedimiento sometido al régimen de autorización (esto es, un procedimiento que deba iniciarse con una solicitud del interesado y deba finalizar con una resolución favorable de la Administración), por haber sido sustituido normativamente por el régimen de la declaración responsable y la comunicación previa, lógico será concluir que existe una dificultad conceptual -más bien, imposibilidad- para aplicar directamente a la comunicación previa las causas de suspensión del plazo para resolver, que están previstas para aquellos procedimientos.” (Arartekoak azpimarratu du).

Beraz, uler liteke edo dirulaguntza-eskaera baldintzak betetzearen aurretiazko kontrol baten mende dagoela arauan araututako administrazio-prozeduraren hasiera-fasean, edo, bestela, ondorengo kontrol baten mende dagoela, eta, beraz, erantzukizunpeko adierazpenak saihestu egiten duela dokumentazioa aurkeztea





jarduera hasten den unean, [APELen 69. artikuluan](#) xedatutakoaren arabera. Artikulu horren arautzea APELen 21. artikuluekin osatzen da, zeinak Administrazio Publikoak ebazpena ematek eta jakinarazteko betebeharrak salbuesten baititu.

lido horretan, badirudi desiragarria dela BFAk herritarrei argitzea *ab initio* baldintzak benetan bete behar dituzten eskaera eta dokumentazio osagarria aurkeztean, eta, beraz, Administrazioak baldintza horiek egiaztatze eta, hala badagokio, zuzentzeko erabakiaren zain geratzea.

Edo bestela, izapidetzea sinplifikatzeko eta karga burokratiko aurrezteko, Administrazioa erantzukizunpeko adierazpen bat aurkezteko eskatzearen alde ager daiteke, interesdunak bere erantzukizunpean sinatutako dokumentu baten bidez, zeinaren edukiak APELen 69.1 artikuluan adierazitako alderdiak kontuan hartuko baititu. Kasu horretan, Administrazioak baldintzak egiaztatze dokumentazioa emateko eskatu ahal izango du, *a posteriori* egindako kontrol eraginkor baten bidez, izapidetzea sinplifikatze aldera. Administrazioak egiaztapen hori egin dezakeela uste da, ordenamenduak ematen dizkion egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak erabiliz (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko Lege Organikoaren 4. artikulua). Bertan, honako hau ezartzen da:

“4. artikulua. Administrazio publikoen esku-hartzeko printzipioak, jarduerak egiteko.

1. [...].

2. Administrazio publikoek zainduko dute aplikatu beharreko legerian aurreikusitako betekizunak bete daitezela. Horretarako, zeinek bere eskumenen barruan eta datu pertsonalak babesteko legerian ezarritako mugekin, beharrezkoak diren egitateak, egintzak, elementuak, jarduerak, zenbatespenak eta gainerako inguruabarrak begiratu, egiaztatu, ikertu eta ikuskatu ahalko dituzte”.

Izan ere, badirudi Administrazioa, interesdunei egiaztatze baimena eskatzean, honela adierazten dela (167/2021 Foru Dekretuaren II. eranskina):

“Baimena ematen diela Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Foru Sailari eta Interbiak sozietateari bere izenean eskatu ditzan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatze informazioa eta, hala badagokio, ziurtagiriak, bai eta hemen adierazitakoa benetakoa den egiaztatze behar den beste edozein informazio ere”.

Egindako kexari dagokionez, nahiz eta erantzukizunpeko adierazpenaren baldintzak egiaztatu behar diren, interesdunari aukera eman behar zaio emandako datuen





egiazkotasun ezari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzeko; izan ere, titularren eremu juridikoan eragiten dituzten ondorio juridikoak garestiak izan daitezke, kasu honetan bezala, eta ondareari eragin.

Izan ere, interesdunak BFari gidabaimena entregatu zion, lehenik, Estatuko Administrazio Orokorraren erregistro elektronikoaren bidez eta, ondoren, Bidesaria plataformaren bidez. Gidabaimen horren analitika egiazta daiteke ez duela inoiz indarraldia galdu (2022ko apirilaren 4an berritu zen), eta, gainera, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak aldi baterako gidabaimena eman zion 2022ko martxoaren 10ean, zegozkion tasak ordaindu ondoren.

Arartekoaren iritziz, onuradunak une oro bete zuen erantzukizunpeko adierazpenaren betebeharra, gidabaimenaren indarraldiari eutsi baitzion dirulaguntza ukatu zitzaion hilabete guztietan. Administrazioak berak zuzenean egiazta zezakeen betebeharrak hori Trafikoko Zuzendaritza Nagusiaren gidabaimenen erregistroa kontsultatuz, datu-bitartekaritzarako plataformen bidez, elkarreragingarritasunari buruzko arauekin eta administrazio publikoen arteko lankidetzan, elkarlana eta koordinazioaren inguruko printzipioekin bat etorritik. Horiek guztiak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko [155. artikuluan](#) eta [3.2 artikuluan](#) jasota daude, eta jarduketa hori bateratu egiten du "behin bakarrik" aurkeztearen printzipioarekin eta administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko eskubidearekin (APELeko [28.2](#) eta [53.1.d](#) artikulua; Euskal Sektore Publikoaren 3/2022 Legeko [69.2.g](#) artikulua eta Administrazio elektronikoari buruzko maiatzaren 5eko 62/2015 Foru Dekretuko 6. artikulua).

"6. artikulua. — Datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea

1. [...].

2. Bizkaiko Foru Aldundiko eta haren erakunde publikoetako administrazio-organoei administrazio publikoetatik datuak eta dokumentuak eskuratzeko erabiliko dituzte bitarteko elektronikoak; horretarako, derrigorrezkoa bada edo lege batek hala ezartzen badu, interesdunaren baimena izan behar dute izaera pertsonaleko datuak direnean.

Interesdunari berriaz jakinaraziko zaie datuak eta dokumentuak ez aurkezteko eskubidea erabilita baimena ematen diotela eskubide hori erabili duten administrazio-organuari datuak eta dokumentu horiek dauden administrazio publikoetako organoetatik eskuratzeko.

Baimen horrek kasuan kasuko prozedurarako balio izango du, eta edozein unetan errebotatu ahal izango da.

[...]. (Arartekoak azpimarratu du).





Aurrekoa alde batera utzi gabe, erakunde hau sentsibilizatuta dago Euskadiko administrazio publikoen administrazio elektronikoaren ezarpen- eta garapen-mailarekin, eta, horren ondorioz, "[Administrazio digitala eta herritarrekiko harremanak. Euskal administrazio publikoetako aplikazioa](#)" izeneko azterlana argitaratu du. Bestek beste, elkarreragingarritasunari buruzko arazoak aztertzen dira. Hona:

“Are gehiago, oro har ez dirudi Administrazio publikoak elkarreragingarritasun-sistemak erabiltzen dituenik beste administrazio batzuek dauzkaten dokumentuak eskuratzeko, eta horixe da herritarrei irtenbide hobeak eskaintzeko eta Administrazioak badauzkan dokumentuak aurkezteak dakarren zama saihesteko arazoaren muinetako bat. Nolanahi ere, harrigarria da hainbeste administrazio publikok herritarrei agiriak eskatzen jarraitzea arauen arabera beharrezkoak ez direnean, eskuarki administraziook badauzkaten datuak direlako edo beraiek jardun arduratsuekin egiaztatu ditzaketelako, herritarrek dokumentazio edo informazio hori aurkeztu behar izan gabe.

Zalantzarik gabe, gai horretan oso garrantzitsua da bitarteko elektronikoei buruzko erregelamenduak 60. artikuluan (erregistroen interkonexio-sistema), 61. artikuluan (datu-transmisioak) eta 62. artikuluan (datu-bitartekaritzarako plataformak) jasotzen duen arauketa; izan ere, elkarreragingarritasunak eta, batez ere, administrazio publikoen arteko datu-transmisioak eta -bitartekaritzak hiru tresna edo mekanismo horiek hartuko dituzte oinarritzat herritarrak edo interesdunak zama jakin batzuetatik salbuesteko. Tresna horien funtzionamendu egokian oinarrituko da Administrazio elektronikoaren eta herritarrek eremu horietan dauzkaten eskubideen ereduaren eraginkortasuna”.

Azterlanetik ateratako ondorioei buruzko atalean, Administrazioarentzat interesgarriak izan daitezkeen zenbait irtenbide eta jarraibide proposatzen dira. Hona:

[...]

Nolanahi ere, jakitun izan behar dugu administrazio elektroniko edo digitaleko sistema integral edo holistikoa ezartzeak epe ertain edo luzeko neurri batzuk dakartzala, zeinek harmoniaz konbinatu behar baitituzte alderdi teknologikoetarako ezinbesteko arreta, inbertsio finantzarioak (zeinak handiak izan baitaitezke), prozesuak (izapideak erraztea eta, horrela, zamak murriztea) eta antolaketa eta pertsonen kudeaketa berritzeko neurriak. Gainera, kontuan hartu behar da administrazio digitaleko eredu berriak herritarrei emandako zerbitzuak hobetzean jarri behar duela arreta nagusia une oro. Izan ere, ondo planteaturiko sistema batek kudeaketa hobetu, herritarrei zerbitzu azkarragoak eta kalitate hobekoak eskaini, oztopo eta zama burokratikoak kendu (gauzak beste era batean eginez), antolaketan berritzeko palanka izan eta prozesuen





kudeaketaren eta egituren arrazionalizazioan ondorio onuragarriak (arintasuna eta trazabilitatea) eduki beharko lituzke. Zalantzarik gabe, horrek, orobat, eragin saihetsezina dauka paperezko dokumentuak kudeatzeko edo izapidetzeko zereginak egiten dituzten lanpostuetan, gaikuntza altuagoko zeregin eta eginkizunetan aritzeko migratu beharko baitute, jakina, eta horretarako prestakuntza jaso beharko baitute aldez aurretik. Era berean, gardentasuna eta, beraz, kontu-ematea areagotu beharko lituzke. Administrazio publikoak, eskuarki, gauza berberak egiten jarraitzen du, baina oraingoan ez bitarteko tradizionalerik, baliabide teknologikoz edo digitalez baizik. Dena den, badaude esperientzia batzuk nolabaiteko arrakasta izan dutenak kudeaketan hobekuntza puntualak sartzen, prozedurak eta izapideak errazten, administrazio-kargak murrizten eta emaitzak (eraginkortasuna) kostu txikiagoarekin (efizientzia) lortzen.

[...]

Euskadiko administrazio elektronikoaren egoera eta elkarreragingarritasun-mekanismoetan sakondu beharra: Geroraezina da administrazio elektronikoaren funtzionamendu osorako beharrezkoak diren azpiegitura teknologiko guztien ezarketa bizkortzea, herritarrekiko harremana errazten dutenak abian jartzea lehenetsiz, batez ere elkarreragingarritasuna xede dutenak, euskal administrazioek badauzkaten dokumentuak aurkeztu ditzatela ez eskatzeko. Ahalegin horretan, funtsezkoa da administrazio bakoitzeko artxibo elektronikoak eraginkorrak izatea”.

III. Aurkeztutako kexaren esparruan, Interbiak-en eta erakunde horretako langileen jarduketaren irismena.

Interbiak erakundeari bitarteko propio pertsonifikatu gisa agindutako jarduketei dagokienez, nabarmendu behar da erakunde publikoaren estatutuetan xedatzen dela, besteak beste, BFAk agintzen dizkion bide-azpiegiturak aztertu, proiektatu, eraiki, kontserbatu, mantendu, finantzatu eta ustiatu behar dituela, bere kabuz edo bitartekoen bidez. Aldiz, ez da dirulaguntzak kudeatzeari buruzko funtziorik xedatzen.

Ildo horretan, bai Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legeko 86.2 artikulua (Estatuko Administrazio Orokorrari aplikatu dakioke, baina egungo doktrinak interpretatzen du oinarritzeko izaera duela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) bidez garatzen baita), bai SPKLren 32.2.d) 2º artikulua mandatuak bitarteko propio pertsonifikatuen bidez gauzatzeari buruzkoak dira, *“bere sozietate-xedearen arabera”*. Horrez gain, Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak honako hau ezartzen du bere aplikazio-eremu subjektiboan (3. artikulua):





“1. Foru arau hau Bizkaiko Lurralde Historikoko foru administrazioari aplikatuko zaio.

2. Horrez gain, zuzenbide publikokoak izanik, foru administrazioari loturik edo haren menpean dauden eta nortasun juridiko propioa duten erakunde eta gainerako entitateek emandako dirulaguntzek ere foru arau honen arabera izan behar dute, dirulaguntza horiek administrazio ahalekin erabileraren ondorio diren neurrian.

Foru arau honetan bildutako kudeaketa-printzipioak aplikatuko zaizkie, halaber, aurreko leerroaldean aipaturiko erakundeek, zuzenbide pribatuaren menpekoak izanik ere, inolako kontraprestaziorik gabe egiten dituzten gainerako diru-emateei ere. Edonola ere, doako ekarpenek erlazio zuzena izan beharko dute entitatea sortzeko arauan edo bere estatutuetan jasotako jardueraren xedearekin. [...]” (Arartekoak azpimarratu du).

Azaldutakoa gorabehera, agian aldatu egin beharko lirateke erakunde publiko instrumentalaren xedea eta helburuak, horren bidez eginkizunak egokitze sektore publikoari aplikagarria zaion araubide orokorrera eta dirulaguntzak emateari buruzko foru-araudira.

Kexa honen oinarrian dauden Interbiak-en eta erakunde horretako langileen jarduketaren irismenari eta esparruari buruzko arazoibidean aurrera egiteko, jarraian, Administrazio loturadunak eman beharreko zerbitzu zehatzak gauzatzen dituzten araudia eta tresna juridikoak aztertu behar dira.

Dirulaguntzen arloan aipatutako Bizkaiko Foru Arauaren 16. artikulua ezartzen duenez, dirulaguntzak emateko oinarri-arauek, gutxienez, ondoko alderdi hauek zehaztuko dituzte: *“Diru-laguntza emateko prozedura antolatze, instrukzioa egiteko eta ebazteko organo eskudunak, eta ebazpena jakinarazteko epea”*. Eta, hain zuzen ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 7ko 167/2021 Foru Dekretuak, zeinaren bidez onartzen baitira foru-aldundien titulartasuneko bidesarien mende dauden eta zuzenean kudeatzen diren bide-azpiegituren erabiltzaileentzako dirulaguntzen 2022ko deialdia eta oinarri arautzaileak, honako hau ezartzen du 13. eta 14. artikuluetan:

“13. artikulua.— Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebazteko duten organo eskudunak

1. [...]

2. Interbiak sozietate publikoak kudeatuko ditu dirulaguntzen eskabideak, hari baitagokio azpiegitura bidesaridunak ustiatzea, Bizkaiko errepideetako bidesarien araubide juridikoari eta Errepideen Lurralde Plan Sektoriala aldatzeko finantzazio-irizpideei buruzko 2010eko urriaren 26ko 3/2010 Foru Arauaren 13. artikulua arabera. Interbiak erakunde laguntzaile gisa jardungo du,





maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 11.2. artikulua aplikatuz. Gainera, arlo bakoitzean pertsona edo erakunde onuradunaren izaera lortzeko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatuko du.

3. Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusiak ebazpen-proposamena igorriko dio Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Saileko foru diputatuari, eta hark emango du ebazpena, dagokion foru aginduaren bidez.

14. artikulua. – Erakunde laguntzailea

1. Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailak badu, bere helburuak lortzeko, berari atxikitako foru sozietate publiko batzuen laguntza. Interbiak Bizkaia, S.A.M.P., sozietatea da zoietate horietako bat. Sozietate horrek dirulaguntzen programan esku hartuko du, erakunde laguntzaile gisa, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera.

2. Interbiak Bizkaia, S.A.M.P., sozietateak Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailaren izenean eta haren kontura jardungo du, sail hori izango da-eta, ondorio guztietarako, Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzen emalea". (Arartekoak azpimarratu du).

Bestalde, BFAk Interbiak erakunde laguntzaile gisa jardun dezan egindako mandatua formalizatzeko hitzarmenak honako jarduketa hauek jasotzen ditu, besteak beste:

- "Hitzarmen honetan jasotzen diren laguntza-eskaerak izapidetzea, eta interesdunek urteko diru-laguntzen programak onartzen dituzten Foru Dekretuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea. Diru-laguntza horien helburua bidesaridun bide-azpiegituren erabiltzaileei laguntzea izango da, aurretik aipatutako Dekretuetan eta aplikatu ahal zaien diru-laguntzen gainerako araudian ezarritakoaren arabera".*
- "Xede horretarako onartzen diren Foru Dekretuetan ezarritako laguntzak ematen edo ukatzen dituen Foru Agindua jakinaraztea".*

Nahiz eta aipatutako araudiak ezarri erakunde instrumentalaren lankidetzaren esparrua egindako dirulaguntza-eskaerak kudeatzera eta egiaztatzea mugatuko dela, Interbiak bitarteko propio pertsonifikatuari egindako mandatuan deskribatutako xedeari eta funtzioei dagokienez, izenpetutako hitzarmenean jasotakoaren arabera, ondorioztatzen da jarduketak barne hartzen dituela laguntza-eskaerak izapidetzea eta onuradun izateko baldintzak egiaztatzea.

Erakunde honek uste du dirulaguntzak emateko administrazio-prozedura arestian aipatutako araudi espezifiko batetik datorrela, zeina: " (...) bat dator erregulazio onaren printzipioekin, printzipio horiek Administrazio Publikoen Administrazio





Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean xedatuta daudelarik eta Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021ko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan, jasota". Hain zuzen ere, 167/2021 Dekretuaren zioen azalpenean bertan islatzen da; beraz, ahalmen publikoak egikaritzearen aurrean bagaude eta administrazio-unitateetako arduradunek eta administrazio publikoetako langileek bultzatu behar badute administrazio-izapidea ([APEL, 20. Art.](#)), badirudi, beharbada, bitarteko propio pertsonifikatuak ez duela gaitasunik eta ahalmenik baldintza bat zuzentzeko egintza bultzatzeko, Arartekoan egindako kexa honen jatorriari dagokion bezala.

Izan ere, Foru Dekretuak eta bitarteko propio pertsonifikatuei egindako mandatuak ez dute zehaztu Interbiak-en jarduketaren irismena administrazio-prozedura antolatzeari, bideratzeari edo bultzatzeari dagokionez. Auzi garrantzitsua da, dirulaguntzen araubide juridikoa arautzen duen foru-arauak berak ezartzen baititu erakunde laguntzaileen betebeharrak. Hona:

"14. artikulua. Erakunde laguntzaileen betebeharrak.

1. Hona hemen erakunde laguntzaileen betebeharrak:

- a) Diru-laguntzaren oinarri-arauetan eta entitate emailearekin sinaturiko hitzarmenean ezarritako irizpideen arabera jasotako funtsak ematea pertsona onuradunei.*
- b) Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren betekizun eta baldintzak benetan eta eraginkortasunez betetzen ote diren egiaztatzea, baita diru-laguntza eman eta laguntzaz gozatu ahal izateko aintzat hartu diren jarduera eta helburua egin eta lortu ote diren ere.*
- c) Diru-laguntza ematen duen organoari jasotako funtsak benetan eman direla frogatzea, eta, kasua denean, pertsona onuradunek aurkezturiko frogagiria ematea.*
- d) Organo emaileak funts horien kudeaketaz egiten ditzan egiaztapen ekintzei men egitea, baita kontrol erakunde eskudunek hala estatukoek, nola autonomikoek edo Europar Batasunekoek egin dezaten beste edozein egiaztapen ekintza edo finantza-kontroli ere, eta aipaturiko ekintza horiek gauzatzean eskatzen zaizkien agiri guztiak ematea".*

Erakunde honen iritziz, erabakigarria da Interbiak-en jarduketaren irismena zehaztea, egindako kexari dagokion administrazio-prozeduraren esparruan. Iritzi hori Auzitegi Gorenaren doktrinan oinarritzen da. Doktrina horren arabera, oro har, administrazio-prozeduren izapidetzea, administrazioen ezinbesteko jarduera tekniko eta arrunta den heinean, dagozkien eskumenak dituzten organoetan integratutako funtzionario publikoei erreserbatzen zaie. (*Jurisprudentzia Bilduma Ofiziala: Auzitegi Gorenaren*





1.160/2020 Epaia, 2020ko irailaren 14koa⁶): *“Como regla general, la tramitación de los procedimientos sancionadores incoados por las Administraciones Públicas han de ser tramitados por el personal al servicio de tales administraciones sin que sea admisible que, con carácter general, de permanencia y de manera continua, puedan encomendarse funciones de auxilio material o de asistencia técnica a Entidades Públicas Empresariales, sin perjuicio de poder recurrir ocasionalmente y cuando la Administración careciera de los medios para ello, al auxilio de Entidades Públicas Empresariales, como medios propios de la Administración, a prestar dicho auxilio o asistencia)”*.

Aipatzekoa da, halaber, Auzitegi Gorenaren 3312/2020 Epaia, urriaren 7koa⁷, kasazio-interesekoa; izan ere, prozedura baten izapideetan Administrazioi estatutupeko langileak ez diren pertsonen esku hartzeko aukerari buruz eztabaidatzen da (1. oinarri juridikoa). Hona:

“La ya citada sentencia del Tribunal Supremo de 08/10/2013, cas. 5847/2011, deja claro que no puede ser objeto de la encomienda de (...) tareas que impliquen gestión de expedientes administrativos, confirmando la sentencia de instancia en tanto que anuló la encomienda “al entender que algunas de las tareas encomendadas en la disposición tercera de aquella Orden, no son -a diferencia de lo alegado por la Administración- meras actividades materiales consistentes en la realización de funciones técnicas”. Bastaría aludir -dice después- “a las tareas consistentes en la 'gestión y control de los expedientes administrativos que se generen como consecuencia del desarrollo de este proyecto', o a las referentes al 'control y gestión del sistema de inscripciones: registro y comprobación de las solicitudes, gestión de incidencias, así como todas aquellas tareas encaminadas a garantizar el cumplimiento de los objetivos del proyecto” > .

“En este sentido, como hemos visto más arriba, y se detalla en el Pliego de PTP, apartado 4.2, TRAGSATEC se encarga de la recepción de los escritos presentados por los interesados, los escanea y vincula a las bases de datos, recibe y bastatea la documentación y se encarga de hacer la “citación y soporte en la práctica del trámite de audiencia a los interesados” (pudimos comprobar en el recurso 396/2012 que semejante soporte consiste en realizar materialmente dicho trámite con el interesado); y, como se dice en numerosos puntos de los pliegos, “presta apoyo” en las notificaciones.

“Todo lo anterior supone una posesión e impulso efectivo del expediente administrativo y de sus documentos que está reñida con las exigencias elementales de custodia y fe pública que deben afectar a dicho expediente y que solo quedan garantizadas si el mismo es poseído, custodiado, ordenado,

⁶ ECLI:ES:TS:2020:2812

⁷ ECLI:ES:TS:2020:3312



incorporado en sus documentos y exhibido al particular por los funcionarios públicos de la Administración titular de la potestad administrativa ejercida.

(...) "Como ya dijimos en la sentencia del recurso 396/2012, la confección material, custodia y exhibición - cuando proceda- de los expedientes administrativos (máxime si son, como en este caso, sancionadores) son actividades pura, específica, típica y nuclearmente administrativas. La Ley 30/1992, de Procedimiento Administrativo Común, dice que los procedimientos se tramitan bajo la responsabilidad de autoridades y del personal al servicio de las Administraciones Públicas (art. 35.b); y mal puede asumirse esa responsabilidad si el expediente ni siquiera se encuentra en poder físico de una sociedad mercantil sujeta al derecho privado, por mucho que preste servicios para la Administración. Esto es algo a nuestro juicio tan claro que parece sorprendente que hayamos llegado al punto en que sea necesario justificarlo e ilustrarlo expresamente. Es algo tan ínsito a todo el diseño estructural y conceptual de las Administraciones Públicas el que la formación, custodia y tramitación física de los expedientes administrativos es tarea de los servidores públicos, no "externalizable", (...). Pero que se diga tan claramente solo en cuanto a la Administración Local no quiere decir que tales reglas no sean equivalentes para el resto de Administraciones Públicas, pues estas reglas no son sino emanaciones de principios tales como el de que las Administraciones Públicas actúan con objetividad (art. 103 CE) y de la misma estructura normativa reguladora de la función pública, con sus derivaciones de fe pública, publicidad documental y responsabilidad. La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común -aunque no sea aplicable al caso de autos creemos que puede ser citada a estos efectos- dedica su artículo 70 al "expediente administrativo"; dado que el procedimiento administrativo se tramita bajo la responsabilidad directa de los titulares de las unidades administrativas (art. 71.4), parece innecesario tener que argumentar demasiado acerca de que el rastro o soporte físico del procedimiento administrativo (el expediente) debe estar confeccionado, custodiado y manejado por los funcionarios de dichas unidades, pues mal puede asumirse esa responsabilidad si el expediente se a disposición de una sociedad mercantil que es la que, por ejemplo, recibe los documentos que presenta el expedientado y le remite los que elabora la Administración. Creemos que cuando el art. 70 alude al "conjunto ordenado de documentos y antecedentes" da por hecho que dicho conjunto se ordena bajo el control y tenencia efectiva de las unidades administrativas y no de una sociedad mercantil que lo posee bastantea documentos, incorpora al sistema informático y da vista al expedientado. E igual cuando habla de formar el expediente mediante la agregación ordenada de cuantos documentos, pruebas, dictámenes, informes, acuerdos, notificaciones y demás diligencias deban integrarlos [...].". (Arartekoak azpimarratu du).





Azaldutako paragrafoei dagokienez, Auzitegi Gorenak interpretatzen du enpresa-erakunde publikoak egindako jarduketak baliogabeak direla, eta, ondorioz, emandako zehapen-ebazpenak ere baliogabeak direla; izan ere, enpresa publikoko langileek egin dituzte txostenak eta dosierak eta haiek jaso eta jakinarazi dituzte ebazpenak, bereziki prozeduraren ebazpen garrantzitsuen proposamenak, Administrazio langileek sinatu baitzituzten azkenean.

Interbiak erakundearen lankidetzara-araubidea eta -irismena antolatzen duten arau eta tresna juridikoez gain, Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 9. artikuluko 2. atalean jasotako axiomak dioena ere jaso behar da (5/2015 Legegintzako Errege Dekretua). Hona:

“2. Nolanahi den ere, ahal publikoak baliatzeko jardunetan edo Estatuaren eta administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko zereginetan zuzenean nahiz zeharka parte hartzea eskatzen duten eginkizunak betetzea funtzionario publikoei dagokie, modu eskusiboan, betiere, administrazio publiko bakoitzean arlo hori garatzeko legean ezarritakoari jarraituz”. (Arartekoak azpimarratu du).

Azken finean, arestian azaldu den bezala, dirulaguntzak ematea ahalmen publikoak egikaritzearen ondorio bada (dirulaguntzen araubide juridikoari buruzko 5/2005 Foru Arauaren 3. artikulua), logikoa denez, ez dirudi onargarria denik sozietate publiko batean lan egiten ez duten funtzionarioek interesdunarentzat ondorioak izan ditzakeen egitate bat arau juridikoetara egokitzen den aztertzea, interpretatzea eta erabakitzea, egindako kexan gertatu den bezala; izan ere, egiaztatu da Interbiak erakundeak mezu elektronikoa bidali zituela, zuzentzeko errekerimenduak barne. Errekerimendu horiek, argi eta garbi, administrazio-izapidetzea bultzatzeko egintzak dira, eta ez ditu organo eskudunak egin, edo ez dira interesdunari bermeak eta segurtasun juridikoa ematea ahalbidetzen duten bitarteko elektronikoen bidez (egoitza elektronikoa) egin.

Horregatik guztiatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, honako gomendio hau egin zaio Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako Sailari:

GOMENDIOA

1. Interbiak erakundeak posta elektronikoz bidalitako zuzenketa-errekerimenduei dagokienez.

Administrazio eskudunari gomendatzen zaio dirulaguntzak emateko administrazio-prozedura BFaren egoitza elektronikoen bidez izapidetzea, baldintzak zuzentzeko jakinarazpenak zuzen egiteko. Hala, interesdunak aukera izango du egoitzan





agertzeko, Administrazioak emandako egintza ezagutzeko eta, horrela, legezko eskubide eta interesak epe eta modu egokian defendatzeko.

Era berean, gomendatzen da proportzionaltasun-irizpideak hartzea antzemandako akatsaren funtsaren eta horren ondorio juridikoaren artean, eta behar bezalako arreta jartzea jarduketan, kexagile onuradunak beti bete baitu gidabaimena indarrean izateko betebeharra.

Era berean, iradokitzen da prozeduraren hasieran eta edozein fasetan aurkeztutako datuen eta dokumentuen egiazkotasuna egiaztatzea, datu-bitartekaritzarako plataformak kontsultatuz.

2. Dirulaguntza-eskaerei eta erantzukizunpeko adierazpenei dagokienez.

Administrazioari gomendatzen zaio datuak biltzeko inprimaki sinple eta ulergarriak gaitzea herritarrentzat. Horretarako, honako aukera hauek izango ditu:

- a) prozeduraren hasieran eskatzea datuak eta dokumentazioa (dirulaguntza-eskaera) –APELen 66. artikulua–
- b) edo, bestela, geroagoko *ex post* kontrol baten bidez egiaztatzea baldintzak betetzen direla, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztuta –APELen 69. artikulua–, administrazio-izapideak arindu eta sinplifikatzeko.

Era berean, gomendatzen da datu-bitartekaritzarako plataformak erabiltzea (elkarreragingarritasun-printzipioa) dirulaguntza-eskatzaileek emandako informazioaren egiazkotasuna egiaztatzeko, bereziki datuak kontsultatzeko baimena eskatu denean, elkarri bateratuz interesdunak Administrazioaren esku dauden datuak ez aurkezteko duen eskubidea eta behin bakarrik aurkeztearen printzipioa deritzona (once-only ingelesez). Printzipio hori gako da administrazio elektronikoaren garapenerako.

3. Interbiak erakunde laguntzailearen jarduketaren irismenari dagokionez.

Gomendatzen da Interbiak bitarteko propio pertsonifikatuaren lankidetzaren irismena zehaztea, bai eta erakundearen estatutuak aldatzea ere, helburuak dirulaguntzen kudeaketara egokitzeko, foru-araudiari kasu eginez; izan ere, administrazio-ahalmenak egikaritzea Administrazioko langileentzat eta administrazio-prozeduraren izapidetzea bultzatzeko gaitasuna duten administrazio-unitateetako arduradunentzat erreserbatuta dagoela jotzen da.

